


Euskal AEko BPGa % 3,0 hazi zen 2004an

Tasa horrek gainditu egin zituen Estatuko (% 2,7), euroaren eremuko (% 2,0) zein 25 kideko Europar Batasuneko (% 2,3) tasak

Euskal AEko ekonomian, 2004. urtea bukatzean, BPGaren batez besteko hazkundera % 3,0koa izan da, tasa errealetan, EUSTATEk landutako datuen arabera. Hazkunde horrek puntu erdian gainditu du 2003koa, aurreko urtean % 2,5eko hazkundera izan baitzen.

Urte arteko hiruhilekoko bilakaera aztertzen badugu 2004. urtean, moteltze arina ikusten da laugarren hiruhilekoan, lehen hiru hiruhilekoetan kalkulatu ziren tasen aldean; hala eta guztiz ere, hiruhilekoen arteko hazkundera % 0,7 da, 2004ko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

BPGaren urte arteko hazkunde-tasa errealak (ehunekotan)



Urtaroen eta jaiegunen eraginetatik zuzendutako datuak.

Iturria: Eustat, INE (Estatua) eta Eurostat (Europar Batasuna)

Eskaintzaren ikuspuntutik, sektoreen bilakaeretan alde nabarmenak ikusten dira, baina, hala ere, aztertu diren sektore guztiek era positiboan eragin diote BPGaren hazkundeari Euskal AEn.

Lehen sektoreak izan du urte arteko hazkunderik onena 2004an, % 15,1ekoa, hain zuzen. Hartara, 2001. urteko mailara itzuli da, 2003an atzerakada nabarmenak izan ostean. Industriak era askoz profil biziagoa erakutsi du 2004an, aurreko urtean baino: % 2,4 urteko hazkundera izan du, urtebete lehenago izan zuen % 1,4ko tasa txikiagoaren aldean.

Eraikuntza 2003an baino bi hamarren gutxiago hazi da (2003. urtean % 3,7 hazi zen, eta 2004. urtean, % 3,5), eta, gainera, moteltzeko joera izan du 2004ko lau hiruhilekoetan zehar.

Zerbitzu-sektoreak hazkunde nabarmena izan du 2004an, % 2,8koa, baina 2003an baino bi hamarren gutxiago hazi da. Sektore horrek, hain zuzen, egin du ekarpenik handiena enplegu garbia sortzean.

BPGa merkatu-preziotan. Eskaintza. Urte arteko hazkunde-tasak.
Oinarri-urtea: 2000. Prezio finkoak. Euskal AE.

	2003	2004	2003				2004			
			I	II	III	IV	I	II	III	IV
Nekazaritza eta arrantza	-15,6	15,1	-23,4	-12,9	-13,2	-12,8	23,5	4,2	20,2	13,7
Industria	1,4	2,4	1,6	1,2	1,6	1,3	2,1	2,4	2,5	2,5
Eraikuntza	3,7	3,5	3,6	3,7	3,7	3,9	3,8	3,6	3,4	3,3
Zerbitzuak	3,0	2,8	3,1	2,5	3,1	3,2	2,8	3,0	2,8	2,6
Produktuen gaineko zerga garbiak	4,5	4,8	3,9	4,5	4,8	4,7	4,8	4,7	4,8	4,7
Barne Produktu Gordina, merkatuko preziotan	2,5	3,0	2,4	2,2	2,6	2,6	3,0	3,0	3,1	2,9

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak. Unitatea: %

Iturria: EUSTAT

Eskariaren ikuspegitik, barne-eskaria hazi egin dela ikusten da, % 2,7ko tasa errealekin; hots, aurreko urtean baino hamarren bat gutxiago hazi da. Hortaz, kanpo-saldoak era positiboan eragin dio BPGari, aurreko urtean ez bezala, orduan barne-eskariaren hazkundera BPGaren hazkundera baino handiagoa izan baitzen.

Etzeguneen azken kontsumoaren hazkunde-tasa % 2,5ekoa izan zen 2003an, eta, urtebete geroago, % 2,4 hazi da. Bestalde, Herri-administrazioen azken gastua ere txikitu egin da, baina % 3,1eko hazkunde-tasa erreala izan du.

Kapital-eraketa gordinak (inbertsioa) urte arteko hazkunde-tasa hamarren batean hobetu du (2003an % 3,1 izan zen, eta 2004an, % 3,2), eta barne-eskaria gehiago murriztea saihestu du.

Kanpo-sektorea oso dinamikoa izan da, eta ikusi da 2004ko lehen sei hilekoan industria-ondasunen atzerriko merkataritzak izan zuen bilakaera ona sendatu egin dela urteko bigarren erdialdean; bai guztizko esportazioek (% 9,0), bai inportazioek (% 8,3) askoz hazkunde handiagoak izan zituzten aurreko urteko tasen aldean (% 0,9 eta % 1,4, hurrenez hurren).

Euskal AEko ekonomiak badu oraindik ere saldo positiboa enplegua sortzean, eta landun-kopurua % 1,7 igo da, 2003koaren aldean; guztira, 15.000 enplegu garbi baino gehiago sortu dira.

BPGak 2004an izan duen % 3,0ko hazkundetik eta enpleguaren urteko bilakaeratik (haren hazkunde-tasa % 1,7 izan da) ondorioztatzen da lanaren faktorearen itxurazko produktibitatea nabarmen handitu dela; izan ere, % 1,3 izan dela kalkulatu da, eta aurreko urtean % 0,6 izan zen.

**BPGa merkatu-preziotan. Eskaria. Urte arteko hazkunde-tasak.
Oinarri-urtea: 2000. Prezio finkoak. Euskal AE.**

	2003	2004	2003				2004			
			I	II	III	IV	I	II	III	IV
Etzeguneen azken kontosumoko gastuak	2,5	2,4	2,6	2,5	2,5	2,4	2,6	2,5	2,4	2,2
Herri-administrazioen azken kontsumoko	3,5	3,1	4,2	3,1	3,6	3,2	3,2	3,3	3,0	3,1
Kapital-eraketa gordina	3,1	3,2	3,7	3,1	3,2	2,2	2,6	3,3	3,4	3,6
Barne-eskaria	2,8	2,7	3,1	2,8	2,9	2,5	2,7	2,8	2,8	2,7
Guztizko esportazioak	0,9	9,0	2,3	3,5	-1,5	-0,8	10,9	6,7	9,9	8,3
Guztizko inportazioak	1,4	8,3	3,4	4,4	-1,0	-0,9	10,0	6,3	9,1	7,8
Barne Produktu Gordina, merkatuko preziotan	2,5	3,0	2,4	2,2	2,6	2,6	3,0	3,0	3,1	2,9

Urtaoren eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak. Unitatea: %

Iturria: EUSTAT

Lurralde historikoka, Arabako ekonomia beste bi lurraldekoak baino gehiago hazi da; izan ere, % 4,6ko hazkunde-tasa izan du, eta Bizkaian zein Gipuzkoan tasa hori % 2,7 izan da. Araban 2004. urtean BPGa gehiago hazi izanaren arrazoia da nekazaritzako eta industriako sektoreek jarduera handia izan dutela, bai eta aurreko urtean hazkunde txikiaren lurraldea izan zela ere.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Javier Aramburu Irizar

Tlf:+34-945-017 509 Fax:+34-945-017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp